

Banatuko bagina?



Zigor Etxeburua Urbizu

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EUSKARAKO
ZUZENDARI, 2011-2015 LEGEALDIAN

Ez, tamalez ez da notizia izan egungo Gipuzkoako Foru Aldundiak bururaino eraman duela euskararen erabilera arautzen duen 2013-2017 normalizazio plana. Hori balitz! Albis-tea EAeko Epaitegi Nagusiak eman du, aurreko legealdian osatu genuen planaren aurkako epaia eman baitu. Gauzatu da Espainiako Estatuaren zaldun Urkixoren mendekua. Ezin zuen eraman 2011n hasi eta 2015eko maiatzera arte iraun zuen amets egi bihurtua. Lehenik Gipuzkoako udalen aurka ekin zion, berreuskalduntzeko haien ahalegin koordinatu bikaina (kontratazio publikoetako hizkuntza irizpideak, helduen euskalduntzearen doakotasuna, komunikazio euskalduna...) zangotrabatzeko. Aldundia jomugan zuen, insurrekzio euskaltzale haren buru zelakoan, baina ezin. Aldundian, ordura arteko araua aldatu gabe praktikatu genuen gure hizkuntza politika berria, eta legealdi amaieran onartu genuen politika hori jasoko zuen erabakia. Bitartean, txapeloker frustratua zain zegoen, amorruez.

Euskaraz bizitzeko hautua eta determinazioa gauzatu genuen euskarari lehentasuna eman zion praktikan. Horretarako arrazoi teknikoak genituen (eta ditugu), bi hizkuntza ofizial izanik, hautatu egin behar baita zein jarri lehenengo eta zein gero. Gainera, arrazoi

Euskaraz bizitzeko apeta gisa saltzen digute, euskaldunon eta soilik euskaldunon kontu bat bailitzan. Gainera, Aldundian agintekide dira uste dutenak gehiegi dela lan publikoetarako euskara eskatzea, eta gipuzkoarron euskara planaren aurka egiteko Estatuaren X euro baliatu dira

soziolinguistikoak ere bagenituen (eta ditugu), Gipuzkoa lurralde euskalduna baita. Erakundeari zegokion errealitate euskaldun horri egoki erantzungo zion

hizkuntza praktika garatzea, euskaldunen hizkuntza hautua erraztuz eta gaztelania nahi zutenen hautua bermatuz. Eta arrazoi politikoak genituen (eta ditugu) Euskal Herria berreuskalduntzea baita abertzaleon helburu behinena, eta horretarako, ekitatezko politikak ezarri behar dira euskararen mesedetan, “egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea ez baita berdintasuna, injustizia baizik” (Ekolingua).

Emaitzak entzutetsuak eta begi-bista-koak izan ziren: erakundearen agerraldietan eta ekitaldietan euskara nagusitu zen, aldi bereko itzulpena boladan jarri zen, euskaltegietan ikasleak gehitu ziren, hizkuntza aholkularitzen telefonoak astindu zituen enpresa askok eta abar.

Orain zer? Bada, euskaraz bizitzeko apeta gisa saltzen digute, euskaldunon eta soilik euskaldunon kontu bat bailitzan. Gainera, Aldundian agintekide dira uste dutenak gehiegi dela lan publikoetarako euskara eskatzea, eta gipuzkoarron euskara planaren aurka egiteko, Estatuaren X euro baliatu dira, Aldundian buru den alderdiak babestu duen aurrekontutik. Teleberriak ez dizu kontatuko, baina gehitzen eta bizkortzen ari dira gure buruak gobernatzeko ahalmenaren eta nahiaren aurkako urratsak. Zenbat irabaziko genukeen Espainiatik banatuko bagina! ■

EUSKAL OROIGARRIAK
Harizko brodatu personalizatueta adituak

En la Magala, 15
San Jeronimo, 14
Paris, 14
28003 Domestik - Euskal Herria
☎ 658 210 338 / 618 054 279 - info@28magala.com